



Deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion lanpostu hutsak lehiaketa bidez betetzeko, Larraungo Udaleko enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera (azaroaren 29ko 94/2022 Alkate Ebazpenaren bidez onartua eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2022ko abenduaren 12an, 247. zk.).

Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion administrari ofizialaren lanpostu hutsa merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren 10. oinarrrian xedatutakoa betez, Epaimahai Kalifikatzaileko kideak elkartu dira (34/2024 Alkate Ebazpenaren bidez, apirilaren 2koa, izendatuak).

Epaimahai kalifikatzaileak izangai hau kontratatzeko proposamena egin du, bete beharreko plaza kopuruan puntuaziorik handiena duen eta plazaren baldintzak betetzen dituen izangaia delako:

SARALEGUI OCHOTORENA, IDOIA

NAN: 44144499R

Lanpostu hutsa: administrari ofiziala.

Deialdiaren 10.2 oinarrrian xedatutakoaren arabera, proposatutako izangaiak, Udalaren atariaren deialdiaren web fitxan izendapen-proposamena argitaratu, eta 10 egun balioduneko epean, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta normaltasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.
2. Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.
3. Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikotan aritzeko eta ez dela bereizia izan administrazio publikoren batean zerbitzutik.
4. Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.





Behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izango dira izendatu edo kontratatu deialdiko 3. oinarrian eskatutako betekizunen bat betetzen dela egiaztatzen ez duten izangaiak, edo dokumentuak aurkezten ez dituzten izangaiak, eta haien jarduketa guztiak baliogabetuko dira, eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Goian aurreikusitako kasuan, hutsik gelditu den plazaren baldintzak betetzen dituen izangaiarekin beteko da baja. Izangai hori deialdiko 8. eta 9. oinarrietan aipatzen den gaituen zerrendan sartuko da berehala, eta aurreko apartatuetan adierazitako modu berean jokatu da.

Iragarkia iragarki-taulan, Larraungo Udalaren egoitza elektronikoan eta Udalaren webgune ofizialean argitaratuko da.

MAHAIBURUA

Mikel Uharte Martija

MAHAIKIDEA

Edurne Razkin Jaka

IDAZKARIA

Ana Alduntzin Navarro

